

2011ko Apirilaren 16ko goizean gerraren kontrako bi aktibista EAJk Bilbon duen egoitzaren(Sabin etxea) fatxadara igo ziren eta pankarta erraldoi bat eskegi zuten honako leloarekin" EAJ-PNV: Sí a la guerra. Gerra inperialistarik ez" eta bertan eskegitak egon ziren zuhiltzaileak , Ertzaintzaren eskariari kasu eginez, beheratu zituen arte.

2012ko Otsailaren 26an, Ismael Ortega eta Inaxio Menjon aktibistak zazpigarren instruzio epaitegira doaz alor publikoaren aurkako delitu bat leporatzen zaielako.

Sententzia hitzaroten dugun bitartean, jakinda "gerra salatzeagatik errudunak garela", Ekologistak Martxan, KEM-MOC, Kakitzat, Sare Antifaxista eta Komite Internazionalistak kolektiboak Libiako gerra salatzen jarraitzen eta jarraituko dugu; Ejerzitoak, alderdi politikoek eta armagintza industriak duten papera, herritar zibilen sufrimenduen gainetik negozioa egiten jarraitzen baidute.

2011ko martxoaren 22an, Espainiako diputatuen kongresuak Libiako gerran Espainiaren parte hartzeak erabaki zuen ia aho batez PNV-EAJ, PSOE, PP, CiU, ERC, ICV, UPD, UPN eta CC alderdien botoekin. Europako estatuek eta Ipar Amerikak bultzatu dute Libiako gerra, NBEren begirunez. Hilabete hauetan kaleetan eman diren liskarrak eta OTANek egin dituen airezko 20.000 erasoak kontutan izanda ezan dezakegu estatu Espainiarrak herri baten zuntzipenari babesa eman diola gainera jakinda lehenengo hilabeteetan hildakoen kopurua 50.000

pertsonetakoa zela, errefuxiatuena milaka izanik.

Gerraren apostua salatzen dugu ez bakarrik petroleo eta gasarekiko interes ekonomikoak babesteko modu bat bezala, baita ere armen salmenten negozioa mantentzeko modu bat bezala; naiz eta 27000milioiko zorra bat izan 2025 urteraino eta mundu krisi egoera bat, estatu Espainiarra 123milioi euro gastatu ditu eraso militarretan, euskadiko gobernuak administrazio publikoan ebaki duen diru kopuru berbera.

Horrela gatazkaren soluzio-bide bezala gerraren erabilera salatzen dugu non honen ondorioak, beti bezala, populazio zibilak bere heriotza, sarraski eta miseriarekin ordaindutzen dago. Gainera, naiz eta gatazka amaitutzat eman, ez da egia, heriotzak ez dira eten eta guda zibilaren arriskua dago. Badaukagu orain duela gutxi gertaturiko adibide batzuk non gerra erabileraren ondorioak bortitzak izan dira: Afganistan, Iraq. Are gehiago, estatu erasotzaileen jokabidea salatu nahi dugu guda hasi baino lehenago Libiarekin zuten armen salmentarekin irabazi handiak lortzen ari zirelako. Zentzu honetan, espainiar estatuaren jokabidea azpimarratu nahi dugu, 2010eko lehen seihilekoan 6.8 milioi eurotan baloratutako material militarra esportatu baitzuen Libiara. Euskal empresak diren ITP eta SENER ere egiten dute negozioa gerrarekin; ITP , 2010ean Libiarekin hegazkin militarren mantenu eta konponketarako lankidetza akordioa sinatu zuen eta F-18ko motorren mantenimendua eramaten du ere(Espainiak bidali dituenak Libiako misioa burutzera). Hegazkin hauek Taurus eta IRIS-T misilak dauzkate eta SENERek egiten ditu.

Herrien menpekotasuna lortzeko(haien baliabideak kontrolatzeko) egiten den eraso inperialista salatzen dugu horrekin lortu nahi dena kontsumo sistema arduragabea mantentzea delako . Hiltzen dute ingurugiroa hiltzen duten baliabideak espoliatzeko. Hau guztiagatik EAJ, PSOE,PP, CIU,ERC,ICV,UPD,UPN eta CCren protagonismoa salatzen dugu herritarrak defendatzeko aitzakia jartzen duten bitartean potentzia indartzuen interesak babesten dituztelako.